


## Geneen ordutegia

Geneak zer ordutan espresatzen diren kontuan hartzekoa izan liteke medikamentuen erabileran

Milaka generen espresioaren ordutegia argitu dute saguetan, Pennsylvaniako Unibertsitateko [Perelman Medikuntza Eskolako](#) ikertzaileek. Eguneko 24 orduetan zehar geneen espresioa nola banatzen den aztertu dute, eta horrek medikamentuen erabileran zer garrantzia izan dezakeen ere azpimarratu dute. PNAS aldizkarian argitaratu dute [lana](#).

Bost urtez aritu dira Pennsylvaniako ikertzaileak saguen genomaren espresioaren ordutegia ikertzen. Ikusi dute proteinak kodetzen dituzten geneen % 43k erritmo zirkadianoren bat duela. Oro har, egunsentia eta ilunabarra baino lehen espresatzen dira gehien geneak, baina ikusi dute gorputzeko organoaren arabera desberdina dela erritmoa. Esaterako, gibelean eta giltzurrunetan arratsaldeko seietatik aurrera dira aktiboak geneak, eta biriketan eguerdian.

Ordutegi hau garrantzitsua izan liteke medikamentuen erabileran. Hain zuzen ere, ikertzaileek azpimarratu dute Munduko Osasun Erakundearen ezinbesteko botiken zerrendako 250 medikamentuen erdiak erritmo zirkadianoa duten geneek kodetzen dituzten proteinetan eragiten duela. Hala, oso litekeena da medikamentu horien eraginkortasuna desberdina izatea ordu batean edo beste hartu. Izan ere, medikamentu horietako askok gorputzean denbora gutxi irauten dute.



Organo bakoitzeko geneen espresioaren ordutegia. ARG. UNIVERSITY OF PENNSYLVANIA SCHOOL OF MEDICINE.

Urteak dira botikak hartzeko ordutegiaren garrantzia ikertzen ari direla, eta emaitza batzuk ere lortu izan dira, kimioterapiaren kasuan, esaterako. Baina orain arte proba eta errorea zen hori ikertzeko modua. “Orain badakigu medikamentuen zein itu dauden ordutegiaren mende eta noiz eta non den haien zikloa gorputzean”, [dio](#) John Hogeneschek. ●

## Semenak GIBaren kontrako mikrobiziden eraginkortasuna murrizten du

Semenak GIB birusaren kontrako mikrobiziden eraginkortasuna nabarmen murrizten duela frogatu du nazioarteko ikertzaile-talde batek. Lehenagotik frogatua zuten semenak GIBaren infekzio-ahalmena areagotzen duela, eta orain ikusi dute horrek berak zuzenean eragiten diola mikrobiziden eraginkortasunari. [Science Translational Medicine aldizkarian argitaratu dute lana](#).

Ikertzaileek adierazi dute horrek azal lezakeela laborategian birusak arrakastaz blokeatzen dituzten hainbeste mikrobizidek zergatik gero ez duten ongi funtzionatzen pertsonetan. Hainbat mikrobizidekin egin dituzte probak, semenarekin eta semenik gabe duten eraginkortasuna konparatuz, eta ikusi dute semena tartean dagoenean 20 aldiz txikiagoa dela mikrobiziden eraginkortasuna.

Semenean dauden amiloide-zuntzek GIBaren infekzio-ahalmena handitzen dute. Birusak zuntzeka horietara lotzen dira, eta birus-multzoak osatzen dituzte. Horrek erraztu egiten du zeluletara itsastea eta haiek infektatzea. Ikertzaileek adierazi dutenez, efektu hori nahikoa da mikrobiziden eraginkortasuna nabarmen urritzeko. Izan ere, mikrobizida gehienek zuzenean birusen kontra egiten dute, haiek hautsiz edo infektatzeko-ahalmena deuseztatzen saiatuz. Ikerketa honetan aurkitu duten salbuespen bakarra beste mota bateko mikrobizida baten kasua izan da (Maraviroc). Mikrobizida horrek zelula ostalarien errezeptoreetan eragiten du, eta kasu horretan semenak ez du eraginkortasuna txikitzen.

Mikrobizidak hobetzeko bide bat haiekin batera amiloide-zuntzeken kontra egingo duten botikak erabiltzea izan litekeela proposatu dute ikertzaileek. Eta, edonola ere, azpimarratu dute ezinbestekoa dela aurrerantzean mikrobizidak laborategian probatzean, semenarekin egitea. ●

